

IDEKO BRTAko kidea den zentro teknologiko bat da, fabrikazio aurreratuan espezializatua, eta bere **misioa** bezeroari balioa ematea da, jakintzak eta teknologiak ikertzeko, garatzeko eta transferitzeko jardueretan bikaintasunetik abiatuta.

IDEKO S.COOP.-en jarduera nagusia da ikerketa, garapena eta berrikuntza proiektuak aurrera eramatea fabrikazio aurreratuaren eremuan, gure ezagutza garatzea eta gure bezeroei transferitzea ahalbidetzen digutenak, haien balio-eskaintza osatuz eta haien lehiakortasun-posizioa indartuz, bereizketa teknologikoaren bidez.

IDEKO S.COOP.-eko Zuzendaritzak, jakitun bere bezeroekin eta interesdun beste parte batzuekin hartzen duen konpromisoaz, erakundearen ezarri du Kudeaketarako Sistema Integratu bat, haien espektatibak betetzea sustatuko duen tresna gisa.


Orain arte azaldutakoarekin bat etorriz, IDEKO S.COOP.-eko Zuzendaritzak honako konpromisoak hartzen ditu:

- **Zerbitzu eta soluzioak hornitzea** asebeteko dituztenak bezero eta interesdun beste parte batzuen eskakizun eta espektatibak, denboran zehar lankidetzaren egonkorri eutsiz, hura hobetzen parte hartzeko.
- **Sustatzea berrikuntza**, lan arriskuen prebentzioa eta ingurumenaren garapen jasangarriaren kultura.
- **Ekarpen aktiboa egitea** gure bazkide eta langileen giza garapen zein profesionalari **talentuaren kudeaketaren bitartez**, etengabe hobetuz kalitatea eta segurtasuna lanpostuetan zein enpresaren beraren lehiakortasunean, eta ikertzaileak industria-sarera transferitzea sustatuz.
- Langileak **inplikatu, motibatu eta konprometitzea** parte hartu dezaten ezarritako Kudeaketa Integraturako Sistemari; sormena sustatuz eta berdintasuneko ingurune egoki bat eraikiz elkarlana ahalbidetuko duena, soluzio berritzaileen bilaketarako.
- **Identifikatu eta ebaluatzea Segurtasun eta Lan Osasuneko** arriskuak gure aktibitatearen baitan, eta baita berari aldatzearen ondorioz sortu daitezkeen haiek ere, horiek desagerrarazteko edo kontrolatzeko, osasunean kalterik eta narriadurarik gerta ez dadin, eta lan-espazio seguru, osasungarri eta irisgarri bat sortzeko.
- Era aktiboan **aurre egitea** ezbehar-tasari eta ikertzea pertsona edo materialei kalteak eragin lekitzeko istripu edo gertaera guztiak, beharrezko neurri guztiak hartuz berriz gerta ez daitezkeen.
- **Garatzea** gure jardueran **ingurumenarekiko** errespetuan, baliabideak modu jasangarrian erabiliz, modu horretan ekarpena egingo zaio ingurumena babesteari, garapen jasangarriari eta kutsaduraren prebentzioari.
- **Betetzea** bezeroaren, legeriaren eta gure jardueratan aplikagarri suertatzen diren araudiak, eta baita gaur egun edo etorkizunean onartzen diren beste eskakizun batzuk ere, sustatuz gure kolaboratzaile, hornitzaile eta kontratistek lan arriskuen prebentzioan eta ingurumen arloan dauden araudiak bete ditzatela.
- **Etengabe hobetzea** Kudeaketa Integratuko Sistema eta prebenitzea kutsadura eta kalitate desbideratzeak enpresak dituen aukera errealean baitan.

I+G+i jardueran kalitatea, ingurumena babestea eta arriskuen prebentzioa IDEKO S.COOP.-eko bazkide eta langile guztien konpromisoa eta ardura dira, eta ondorioz, kontsideratzen dugu hartutako konpromisoak betetzea posible izango dela soilik Zuzendaritzaren aldetik lidergo garbi bat eta gure bazkide, langile, eta kolaboratzaileen inplikazio eta kolaborazioa baldin badago, **etengabeko hobekuntzako** partehartze-kultura bat sustatuz.

Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du behar diren giza eta material baliabideak jartzeko, garatzen diren jarduerak eta ditugun helburuek dakartzaten eskakizunak betetzeko eta etengabe hobetzeko gure kudeaketa sistemaren efikazia eta jarduna.

Nerea Aranguren  
Zuzendari Gerentea



MEMBER OF  
BASQUE RESEARCH  
& TECHNOLOGY ALLIANCE